

Izan zaitez **mintz**alaguna

Zer da Mintzalaguna?

Programa honekin Andoaingo udalak eta AEK euskaltegiak Andoainen euskaraz hitz egiteko aukera gehiago sortu nahi ditugu; hau da, euskaldunok hobeto ezagutzea elkar, eta gure artean euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea. Ez dira klaseak, jende berria ezagutuz euskara hobetzeko modu atsegin bat baizik.

Norentzat da Mintzalaguna?

Euskaldun berrientzat

Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenak, berdin dio ikasten ari diren ala ez. Hemen daukazu primerako aukera ondo pasatuz zure euskara maila hobetzeko.

Euskaldun zaharrentzat

Eguneroko bizitzan euskara erabiltzen dutenak. Euskaraz hitz egin nahi, baina hitz egiteko eragozpenak dituztenei zure laguntza eman diezaikezu euskaraz hitz egiteko erraztasuna har dezaten. Hementxe daukazu Andoaingo euskaldunen arteko harreman-sarea handitzeko eta indartzeko aukera paregabea. Horrela denok izango dugu aukera gehiagotan eta gehiagorekin erabiltzeko.

Izen-ematea

Urte osoan zehar: Irailetik ekainera

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan 943 300 831 · euskarazerbitzua@andoain.org

AEK euskaltegian 943 591 704 · 607 612 392 · andoain@ae.org · mintzalagun.blogspot.com

Bete ezazu afitxa eta Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan edo AEK euskaltegian utzi.

Zer eskaintzen du Mintzalagunak?

Mintzataldeak

Bi, hiru edo lau laguneko taldeek gustuko gauzak egingo dituzte euskaraz: kafea hartu, kontuak eban, paseatu... Adina, zaletasunak, eta disponibilitatea kontuan hartuko dira taldeak osatzeko orduan. Eskatzen den bakarra zure denboratik astean ordu bat ematea da.

Abantailak

UPV-EHUko ikaslea bazara kredituak eskura ditzakezu, UEUko matrikuletan deskontua, BERRIaren asteburuko harpidetza prezio erdian, AIZU! Aldizkaria merkeago, bidaiak eta landaetxetarako egonaldiak...

EGITASMOAN PARTE HARTZEA DOHAINIK DA!

mintzalaguna

Izen-abizenak

Adina

Telefonoa

E-posta

Nahiago dituzun egunak eta orduak adierazi: 3 Aukera